

## **Etika Publikoko Batzordea**

**7/2015 gaia**

### **(...)-KO AUZITEGIAK (...) ZENBAKIDUN ZORPEKOEN ITZULKETAKO PROZEDURA IZAPIDETZEARI DAGOKIONEZ (...)-KO ZUZENDARI (...)-K, AUZI-JARTZAILE DEN (...) SINDIKATUAK AIPATUTAKO PROZEDURAN (...) USTEZKO ARDURADUNTZAT JOTZEN DUENAK, IGORRITAKO KONTSULTARI BURUZKO ERABAKIA**

1.- 2015eko ekainaren 12an Eusko Jaurlaritzako (...) Saileko zuzendari (...)k idazki bat bidali zuen Etika Publikoko Batzordearen (EPB) postontzi elektronikora. Idazki horretan, Etika eta Jokabide Kodeak (EJK) 15.5 atalean xedatzen duenaren babesean, kontsulta bat igorri zuen (...)ko auzitegiak (...) zenbakidun zorpekoen itzulketako prozedura izapidetzeari buruz; izan, ere, prozedura horretan, auzi-jartzaile den (...) sindikatuak (...) gastuak ustez bidegabeki ordaintzearen ustezko arduraduntzat jotzen du.

2.- Kontsulta adierazten duen idazki labur eta zehatzean, hitzez hitz jasota daude bai auziarekin lotuta Auzitegiak bai alde interesdunek gauzatutako ekintzetatik ateratako pasarte batzuk, eta prozedurak unera arte sortutako dokumentazio ia guztia eransten du; agiri horietatik nabarmentzekoak dira, hemen interesgarria denaren ondorioetarako, interesdunak 2015eko apirilaren 21ean sinatutako alegazio-idazkia, eta (...)ren 2015eko maiatzaren 27ko Autoa.

3.- Interesdunaren alegazioen bukaeran prozedura artxibatzeke eskatzen da, argudio hauetan oinarrituta:

"...ez zaie inolako kalterik eragin funts publikoei, aurrekontuan jasotako eta araututako gastu-kontzeptu bat baita, eta indarreko araudiak xedatzen duena bete da hura izapidetzean, kudeatzean zein gastuok ordaintzean ere, aipatutako araudiari zorrozki men eginez. Ondorio horrekin bat datoz (...), eta bata zein bestea ados daude prozedura honetako ekintzak artxibatzeke beharri dagokionez, ondorioztatzen baitute ez zaiola zenbatu daitekeen kalte ekonomikorik eragin funts publikoei, ezta Fiskaltzari ere".

4.- Aipatutako autoak, berriz, zorpekoen itzulketako prozedurarekin aurrera egitea erabakitzen du, eta honako hau argudiatzen du lehen arrazoiketa juridikoan:

"...honetako kasuetan, non legearen arabera kontabilitatezko erantzukizun-ekintzak gauzatzeko zilegitasuna duten subjektuek zorpekoen itzulketako prozedurarekin aurrera egitea eskatzen duten, prozedura irekitzera iritsi gabe ere ekintzak bukatzeko aukera [...] oso modu murriztailean interpretatu behar da, jurisdikzio honetarako sarbidea justifikatu gabe itxi ez dadin eta, horrela, ez dadin urratu Konstituzioak 21.4 artikuluan jasotzen duen benetako babes judizialerako oinarritzko eskubidea. Horrenbestez, aintzat hartuta,

batetik, kasu honetan auzi-jartzaile publikoak modu argian adierazi duela prozedurarekin aurrera egiteko bere nahia eta, bestetik, Legeak auzi-jartzaile horiei kontabilitatezko jurisdikzio honen aurrean ekintzak gauzatzeko aitortzen dien zilegitasuna, nahiz eta horrek inolaz ere ez duen esan nahi une honetan aurretik juzgatzen ari denik aurretiazko diligentzien eta ekintzen xede izan diren gertakariekin lotutako kontabilitatezko erantzukizunak existitzen direla edo ez direla; hala, bada, zorpekoen itzulketako prozedurarekin aurrera egitea erabakitzen da, aktiboki zilegitutakoek aukera izan dezaten egokitzat jotzen dituzten ekintzak gauzatzeko"

Hori horrela, hauxe da EPB honek, EJKren 16.4 artikuluko bigarren paragrafoak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, aho batez hartu duen

## **ERABAKIA:**

### **I.- Aurrekariak**

1.- EJK, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartua, politikaren zentzu etikoa berreskuratzeko asmoz sortu zen, bai eta herritarrek erakundeengan duten konfiantza berreskuratzeko neurri gisa ere.

Horretarako, aipatutako Kodearen asmoa da identifikatzea zer jokabide eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikoei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak guztiz bat etor daitezen dokumentu horretan aurrez zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarren erakundeenganako konfiantza gutxitu ez dadin ahalegina eginez.

2.- EJKk oinarriko bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu. Hain zuzen, EPB honek haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du, beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta antzekoek zein bere xedapenak eraginkortasunez betetzeko interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei erantzuteko.

3.- Horretarako, Kodearen 16.3. paragrafoak EJKren lehen tartekian ezarritakoaren arabera, EJK bera da organo eskuduna «Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzeko, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzeko».

## **II.- EPB-K AZTERTZEKO AURKEZTUTAKO GAIA**

1.- Aztergai dugun auzia (...) Auzitegiak zorpekoen itzulketako prozedura bat izapidetzeari buruzkoa da. Prozedura horretan, auzi-jartzaileak –sindikatuak– kontsultaren egilea jo du arduraduntzat, Eusko Jaurlaritzako (...) Saileko (...) zuzendaria izateagatik.

2.- Etika eta Jokabide Kodearen 15 atalak, zeina “eredugarritasunari eta kanpoko beste adierazpen batzuei buruzko jokabideak eta portaerak” izenekoak baita, hau arautzen du bosgarren puntuan: “kargu publikodunen bat edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuz gero, karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz, edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz, horren berri emango zaio Etika Publikorako Batzordeari, kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak eman ditzan”.

3.- 4/2015, 5/2015 eta 6/2015 erabakietan, hiru kasu horietan kontsultaren xede ziren gertakariak inkardinatu ote zitezkeen edo ez erabaki behar izan dugu, EJKko 15.5 atalean azaltzen den kasu faktikoa aintzat hartuta. Lehenengoan ezetz erabaki genuen, lehiaketako administratzaile izateko desgaitze-neurri baten aurrean baikeunden, eta neurri hura merkataritza-izaerako auzi batean hartu baitzen, ez "prozesu penal zein administrazio-zehapen" baten barruan adostutako inputazio baten aurrean, hain zuzen ere hitz horiekin deskribatzen baitu Kodeko aipatutako atalak EPBri kontsultaren berri ematea dakarren gertaera, Batzorde horrek kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak eman ditzan". Gainerako erabakietan –5/2015 eta 6/2015–, berriz, uste izan genuen betetzen zirela kontsultaren berri EPBri eman behar izateko EJKren 15.5 atalean jartzen diren eskakizun guztiak; izan ere, kasu haiek prozesu penal baten barruan sortutako inputazio judizialen bi kasu zalantza gabe ziren, bata "bere kargurako eginkizun publikoak gauzatzearekin lotutako gertakariengatik" eta, bestean, izendapena baino lehen gauzaturiko "bereziziko garrantzi publikoko ekintzengatik".

4.- Aztergai dugun kasuan, Eusko Jaurlaritzako goi-karguen katalogoan eta EJKra atxikita dagoen kargu publiko baten titularra dugu aurrean, auzi-jartzaileak (...) Auzitegian izapidetzen den zorpekoen itzulketako prozedura baten barruan ustezko arduraduntzat jo duena.

5.- Aipatutako Auzitegiko (...) -k 2015eko otsailaren 11n sinatutako behin-behineko likidazio-aktan "funts publikoei ekonomikoki zenbagarria den kalterik egin ez zaiola" jartzen zuela gorabehera, eta alde batera utzita, orobat, 2015eko maiatzaren 27ko Autoak itzulketako

prozedurarekin aurrera egitea adostu duela, oinarri bakar gisara hartzen bada "oso modu murriztailean" interpretatu behar dela "prozedura irekitzera iritsi gabe ere ekintzak bukatzeko aukera", "kontabilitatezko jurisdikziorako sarbidea justifikatu gabe itxi ez dadin", baina aintzat hartuta horrek ez duela esan nahi "une honetan aurretik juzgatzen ari denik aurretiazko diligentzien eta ekintzen xede izan diren gertakariekin lotutako kontabilitatezko erantzukizunak existitzen direla edo ez direla" –inguruabar batek zein besteak ez dute gonbidatzen zigor-erabaki bat aurreikustera–, egia esan, auzi-jartzaileak interesduna ustezko arduraduntzat jo duen kausa ez da, berez, ez "prozesu penal" bat, ez eta "administrazio-zehapen" bat, eta bi kasu horietan soilik ezartzen die EJKko 15.5 atalak kargu publikodunei eta parekatuei kontsultaren berri EPB honi emateko beharra.

6.- Horri erantzen bazaio 4/2015 Erabakian adierazi genuen bezala –16. eta 18. puntuetan– EJKren 15.5 atalean jasotako araua modu murriztailean interpretatu behar dela, oinarritzko eskubide baten esparruan baitago –gai publikoetan parte hartzeko eskubidea, Konstituzioak 23. artikuluan jasotzen duena– eta, esparru horretan, Auzitegi Konstituzionalak behin baino gehiagotan adierazi baitu Konstituzioan jasotako oinarritzko eskubideei eta askatasun publikoei dagokienez, horiek gauzatzearekin lotutako mugak "modu murriztailean ezarri, interpretatu eta aplikatu" behar direla (ikus, adibide gisara, Auzitegi Konstituzionalaren urriaren 30eko 151/1997 Epaia, 51 OJ), orduan begi bistakoa dirudi kasu honetan ez dela aplikatu behar.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da EPBk aho batez hartutako

#### **ERABAKIA:**

1.- Auzi-jartzaile den (...) sindikatuak interesduna ustezko arduraduntzat jo duen (...) zenbakidun zorpekoen itzulketako prozedura ez denez ez "prozesu penala" ez eta "administrazio-zehapena", eta horiek direnez EJKren 15.5 atalaren arabera goi kargudunek eta parekatuek kontsulta Batzordeari jakinarazteko beharra duten bi egoera bakarrik, aipatutako interesdunak ez du obligaziorik bere kasuaren berri EPB honi emateko, horrek "egoki irizitako gomendioak eman ditzan".

2.- Hala eta guztiz ere, kontsultaren egileari gomendatzen diogu (...) Auzitegiarekin leialki lankidetzan jarraitzea, bere eskubideen alde beharrezkotzat jotzen dituen alegazioak aurkeztuz eta bere esku dauden datu eta informazio guztiak emanaz, horiek salatutako gertaerak argitzen eta, hala badagokio, gertaera horietatik erator daitezkeen erantzukizunak zehazten lagungarriak izan daitezkeen heinean.

3.- Kotsultaren egileari eskatzen diogu EPB hau jakinaren gainean jartzea Erabaki honek aztergai duen zorpekoen itzulketako prozeduraren bilakaerari eta, hala badagokio, amaierari buruz, batez ere handik beste jurisdikzio batzuetako organoen aldeko ekintzak eratoritzen badira.



**Josu Iñaki Erkoreka Gervasio,**  
**Etika Publikorako Batzordeko burua**

**Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainaren 3an.**